

# NOLA JOKATU POLIZIAREN IDENTIFIKAZIO ARRAZISTETAN? GIDA ANTIERREPRESIBO ANTIRRAZISTA

## NOIZ GAUDE IDENTIFIKAZIO ARRAZISTA BATEN AURREAN?



IDENTIFIKAZIO POLIZIAL ARRAZISTAK LEGEZ KANPOKO PRAKTIKAK DIRA, ETA PERTSONA MIGRATUEN ETA ARRAZIALIZATUEN OINARRIZKO ESKUBIDEEN URRAKETA LARRIA DIRA.



### BALIOGABEKO ARRAZIOIAK

«Delinkuentzia handiko auzoa delako»

«Ohiko kontrol bat delako»

«Dokumentazioa eskatzeko betebeharra dudalako»

«Ijitoa/beltza/musulmana/arabiarra zarelako»

«Profilarekin bat egiten duzulako»

«Besterik gabe»

Edo inolako arrazoirik eman gabe...



### BALIOZKO ARRAZIOIAK

Legeak bi kasutan baino ez dio poliziarri norbait identifikatzeko eskatzeko aukera ematen:



Arau-haustearen zantzuak daudenean



Delitua prebenitzeko

1

## IDENTIFIKAZIO ARRAZISTA BAT JASATZEN DUZUNEAN



### POLIZIAK ZER EGIN BEHAR DU

- ➔ Bere identifikazioa ikusgai eramatea
- ➔ Indarkeriarik ez erabiltzea
- ➔ Informazioa modu ulergarrian ematea
- ➔ Grabatzea edo argazkiak ateratzea baimentzea.  
**KONTUZ: EZIN DIRA ZABALDU**



### POLISIAK ZER EZIN DU EGIN

- ➔ Iraindu edo eraso egin
- ➔ Mugikorra kendu edo haren edukira sartu
- ➔ Barne-erregistroetarako argazkia atera
- ➔ Adingabeak helduak balira bezala tratatu.

### ZER ERAMAN BEHAR DUT IDENTIFIKAZIO BATEN AURREAN?

Identifikatzeko balio duen dokumenturen bat:

- ➔ NaNa
- ➔ Pasaportea
- ➔ AIZ (NIE)
- ➔ Errola-agiria
- ➔ Osasun-txartela
- ➔ Jatorrizko herrialdeko nortasun-agiria



### Gomendioa:

Hobe da identifikazio-agiriaren fotokopia konpultsatu bat eramatea eta jatorrizko dokumentuak leku seguruan gordetzea.

## GERTA DAITEZKEEN EGOERAK



1. Dokumenturik ez eramatea edo identifikatzeari uko egitea
  - ➔ Gehienez 6 orduz komisarian atxiki ahal zaituzte.
  - ➔ 100 eta 600 euro arteko isuna.
2. MIAKETA edo gauzen erregistroa
  - ➔ Sexu bereko agente batek egitea
  - ➔ Zure intimitatea errespetatu behar da
3. Atzeritartasun-bulegoan edo komisarian hitzordura ez joatea
  - ! **EZ JOAN /TRANPA-HITZORDUA** Kanporatze-agindua jasotzeko arriskua
4. ATXILOKETA
  - ! **Gehienez 72 ordu.** Abokatu baten eta itzultzaile baten laguntza jasotzeko eskubidea

2

## IDENTIFIKAZIO ARRAZISTA BATEN LEKUKOA ZARENEAN



Zure elkartasuna eta lekukotasuna laguntza handia izan daitezke polizia pertsona arrazializatu batekin identifikazio batean ari dela ikusten baduzu.

- ➔ Galdetu zein den identifikazioaren arrazioa
- ➔ Bildu datu garrantzitsuak: polizia-ki-degoa, agentearen identifikazio-zenbakia, ibilgailuaren identifikazioa, data, lekua eta ordua.
- ➔ Poliziak mehatxatzen bazaitu, jokatu zuhurtziaz eta egin jarraipena diskrezioz
- ➔ Eskaini zeure burua lekuko gisa eta eman harremanetarako zure datuak identifikatutako pertsonari
- ! Grabatzea baimenduta dago.  
**KONTUZ: GRABAZIOAK EZIN DIRA ZABALDU**

IDENTIFIKAZIO ARRAZISTAK JASAN  
DITUZTEN PERTSONENTZAKO  
LAGUNTZA- BALIABIDEAK.



(+34) 646 337 808  
sosarrazakeria.nafarroa@gmail.com  
Zapateria k. 31, 1º



(+34) 625 175 556  
salhaketa.nafarroa@gmail.com  
Serafin Olave k. 5, Entreplanta, of.B



**POLIZIAREN JOMUGA ARRAZISTA BIHURTZEN ZARENEAN, OSO ZAILA IZANGO DA LASAI EGOTEA ETA EGOERA HORRETATIK KALTERIK GABE ATERATZEA. HALA ERE, KOMENI DA IDEIA BATZUK GOGOAN IZATEA:**

- Saiatu beldurrak ez zaitzala geldiarazi; burua hotz mantendu eta jasandako esku-hartzearen xehetasunak gogoratu.
- Identifikazioaren lekuko den jendea badago, eskatu laguntza, lekuko izan baitira.
- Edozein pertsonak grabatu dezake gertatzen ari dena esku hartu gabe. Bideo hori baliagarria izango da gero froga gisa, baina gogoratu ez zabaltzea.
- Poliziak erasotu bazaitu, joan larrialdietara mediku batek artatu zaitzan eta txosten bat egin dezan.
- Gida honen edukia gogoratzea baliagarria izan daiteke.
- Atxiloketek aurrekari polizialak sortzen dituzte.
- Poliziak gomendatuta edo paper bat eman dizutelako komisaldegira joateko zalantza baduzu, HOBE EZ JOATEA. Kanporatze-agindu bat irekitzeko hitzordu tranpa izan daiteke.

**Ez baduzu gogoratzen zer egin, ez zaitetz zapuztu. Estrategiarik onena zuretzat hobekien funtzionatzen duena da.**

**POLIZIAREN IRIZPIDEAK EGIAZKOTASUN-PRESUNTZIOA DU ETA DISKREZIONALA DA; BERAZ, AHOLKU HAUEK EDUKI ARREN, BALITEKE AZKENEAN BERAIEK LORTZEA BEREN HELBURUA.**

**IDENTIFIKAZIO ARRAZISTAK JASAN DITUZTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA- BALIABIDEAK.**



- ☎ (+34) 646 337 808
- ✉ [sosarrazakeria.nafarroa@gmail.com](mailto:sosarrazakeria.nafarroa@gmail.com)
- 📍 Zapatería k. 31, 1º



- ☎ (+34) 625 175 556
- ✉ [salhaketa.nafarroa@gmail.com](mailto:salhaketa.nafarroa@gmail.com)
- 📍 Serafín Olave k., 5 - Entreplanta, of.B

## **POLIZIAREN IDENTIFIKAZIO ARRAZISTAK**



## **GIDA ANTIERREPRESIBO ANTIRRAZISTA**

**Kontuz ibiltzea eta zuhur jokatzeko ez dira beldurrekin nahastu behar; zuhurtziarekin lotu behar dira, hau da, interbentzio polizialaren denborak eta erritmoak ondo neurtzen jakitearekin, arriskuak ahalik eta**